



DEIALDIA, LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO TEKNIKARIAREN 2 PLAZA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA DEIALDIA BETE GABE DEKLARATZEA

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau onetsi du 2026ko ekainaren 2an:

Bat etorrita hainbat lanpostutako plaza hutsak, horien artean garapenaren aldeko lankidetzako teknikariaren 2 plaza, lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren laugarren oinarriarekin, zeina Giza Baliabideetako zuzendariak 2026ko otsailaren 5ean onetsi eta 2026ko 38. NAO-n, otsailaren 20koan, argitaratu baitzen, EBATZI DUT:

1.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea eta deialdia bete gabe deklaratzea.

Onartutako izangaiak

Bat bera ere ez

Baztertutako izangaiak

Ez betetzeagatik deialdiaren oinarrietako 2.1.b betekizuna

NANa	ABIZENAK ETA IZENA
***3784**	RUIZ URBIOLA, RAQUEL

Legenda:

2.1.b) Deialdiaren xede den lanpostu berean izendatua izatea.

2.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsu hauetako bat paratzen ahal da:

- Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsua, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, BI HILABETEKO epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.



Ayuntamiento de
Pamplona | **Iruñeko**
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

GIZA BALIABIDEETAKO ALORRA
Langileria

ÁREA DE RECURSOS HUMANOS
Personal

Iruñean, 2026ko ekainaren 2an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.